

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak ia 800.000 euroko diru-laguntza emango du txikizkako merkataritza sustatzeko

*Txikizkako merkataritzaren lehiakortasuna eta profesionalen prestakuntza hobetzeko bi deialdi argitaratu dira*

Osteguna, 2019.eko martxoak 21

Nafarroako Gobernuak txikizkako merkataritzaren lehiakortasuna eta inbertsioak hobetzeko diru-laguntzetarako bi deialdi egin ditu. Guztira 790.000 euroko inbertsioa egingo du, ekintza horien bidez enpresen lehiakortasuna eta profesionalen prestakuntza hobetzeko.

Lehenengo deialdia [merkataritza-enpresen lehiakortasuna hobetzeko](#) 760.000 eurokoa, txikizkako merkatariei eta merkataritza-ekintzaitzari zuzenduta dago.

Kopuru hori diru-laguntza jaso dezakeen proiektu motaren eta saltokiaren kokapeneko herriaren arabera banatuko da. Hain zuzen, garapen teknologikoko proiektuen kasuan, Iruñeko saltokietarako 260.000 euro eta Nafarroako gainontzeko herrietarako 380.000 euro bideratuko dira. Eta merkataritza-ekintzaitzako proiektuen kasuan, berriz, hiriburuko saltokietarako 50.000 euro eta foru-erkidegoaren gainontzeko herrietan martxan direnetarako 70.000 euro.

Deialdiaren xedea lehendik dagoen enpresa-ehuna sendotzea eta egonkortzea da, eta sektorean enpresa berrien sorrera bultzatzea ere, haiek modernizatzearen eta kudeaketa-sistemak hobetzearen bidez. Diru-laguntzen xedea 2018ko azaroaren 17tik 2019ko azaroaren 6ra arte egindako inbertsioak izango dira: modernizazioko eta berrikuntzako proiektuak, proiektu zehatzak (enpresa-integrazioko proiektuetan parte hartzea, tokiko erakundeek eta beste administrazio batzuk sustatutako proiektuak azkartzea, saltokien lekualdatzeak eta txandakatzeak, landa-merkataritzarako ereduak garatzea, merkataritza-diagnostikoak), garapen teknologikoko proiektuak eta merkataritza-ekintzaitzako proiektuak.

Diru-laguntzetarako eskaera egiteko epea apirilaren 23an amaitzen da. Pertsona juridikoen Nafarroako Gobernuaren web atariko zerbitzu-katalogoaren [fitxa](#) erabili behar dute nahitaez. Pertsona fisikoek bide hau lehenetsiko dute, baina eskaera Erregistroan bertan ere egin dezakete, Iruñeko Navarrerria kaleko 39 zenbakian.

Diru-laguntzen emakida konkurrentzia lehiakorrean izapidetuko da, deialdiak ezartzen dituen balorazio-irizpideen arabera: saltokiaren kokapeneko herria, enpresaren tamaina eta aurretiaz emandako diru-laguntzak.

### Prestakuntzako jarduerak

[Bigarren deialdian](#) txikizkako merkataritza-sektorearen prestakuntza-programarako 30.000 euro inbertituko dira, sektorearen lehiakortasun- eta berrikuntza-ahalmena areagotzeko langileen ikasketaren bidez, baliabide eta ekipo digitalen erabilerari dagokionean bereziki.

Aurreikusten da diru-laguntzak funts galdura egitea, diru-laguntza jaso dezaketen jardueren gastuaren gainean portzentaje bat aplikatuz zehaztutakoa, oinarri arautzaileetan ezarritako irizpideak betez. Hain zuzen, deialdiak laguntza ekonomikoa ematen die txikizkako merkataritzako enpresa txiki eta ertainen asoziazio-erakundeei, prestakuntza-jarduera zehatzetan parte hartzearen bidez. Diru-laguntza horien hartzaileak izan daitezke merkatarien elkarteak, elkarte mistoak (merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak), merkatarien enpresa-elkarteak eta horiek osatutako taldeak.

Nafarroako Gobernuak Nafar Lansarearen eskaintzatik kanpo dauden prestakuntza-jarduerak babesten ditu, txikizkako merkatarien enpresa-kudeaketari edo espezializazioari buruzko eduki zehatza emanez. Prestakuntza emateko gutxienez 8 parte-hartzaile egon behar dira eta 10 orduko iraupena izan behar du. Bestalde, Nafarroatik kanpo egindako prestakuntza-jardueretara (biltzarrak, mintegiak edo jardunaldi teknikoak) bertaratzeko diru-laguntzak ematea aurreikusten da.

Interesa duten erakundeei diru-laguntzak eska ditzakete Nafarroako Gobernuaren web atariko zerbitzu-katalogoaren [fitxan](#), datorren apirilaren 23ra arte.

### **Turismoaren Q ziurtagiria lortzea**

Turismoaren eta Merkataritzaren Zuzendari Nagusiak duela gutxi diru-laguntzetarako [deialdia](#) abian jarri du, Estatuko erakunde eskudunak ematen duen Turismo Kalitatearen Q ziurtagiria lortu edo mantendu nahi duten turismo-enpresa txiki eta ertainei zuzendutakoa. Foru-gobernuak 20.000 euroko inbertsioa egingo du instalazioen edo zerbitzuen goi mailako prestazioa ziurtatzen duen kalifikazio horri sustapen ekonomikoa emateko.

Diru-laguntzak apirilaren 5era arte eska daitezke Nafarroako Gobernuaren izapideetarako katalogoaren [fitxan](#). Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak % 50ean ordainduko dira, hots: markari atxikitze kuota eta hari 2019an zehar erabilera emateko eskubidea, hasierako ziurtagiria lortzeko edo hura berritzeko kanpoko kontu-ikuskaritza egitea eta haien laguntza jasotzea.

Prozedura honek azpiegituren eta zerbitzu turistikoen kalitatea hobetzea du xede. Espainiako Turismo Kalitaterako Institutuak igorritako Turismo Kalitatearen Q ziurtagiria lortu ahal izateko instalazioen eta zerbitzuen egokitasuna egiaztatzen duten kontu-ikuskaritza zorrotzak igaro behar dira. Jarduera hau 2018-2025 aldirako Turismorako Plan Estrategikoan jasotzen da.